



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de noviembre de 2018

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIN SOLDATA-ARRAKALA TXIKITZEKO ESTRATEGIA ETA PLAN OPERATIBOA ONARTU DITU

- **Estrategiaren helburua da 2030. urtean Euskadi Europako herrialdeetan soldata-arrakala txikiena dutenen pare egotea**
- **Hiru dira landu beharreko erronkak: (1) soldata-diskriminazioa ezabatzea, (2) lanbide arteko bereizketa gutxitzea eta (3) berdintasunerako eta berdintasunetik hezten sakontzea**
- **Plan Operatiboak 4 ekintza-ardatz ditu, 20 zuzentarau, 60 neurri zehatz eta 283 milioi euroko baliabide ekonomikoen aurreikuspena 2019-2020ri begira**
- **Estrategiaren eta Plan Operatiboaren edukia**

Gobernu Kontseiluak Euskadin soldata-arrakala txikitzeke Estrategia eta Plan Operatiboa onartu ditu. Dokumentu honetan, 2030. urterako Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako bost herrialdeen artean jartzea da helburua. Plan Operatiboak 4 ekintza-ardatz ditu, 20 zuzentarau, 60 neurri zehatz, eta 283 milioi euroko baliabide ekonomikoen aurreikuspena hurrengo bi urterako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak bere XI. Legegintzaldirako Gobernu Programan konpromiso bat hartu du: benetako berdintasuna bultzatzea, eta, horregatik, dokumentu hau aurkeztu du, soldata-arrakalak emakume eta gizonen arteko gure gizarteko desparekotasuna erreproduzitu eta betikotzen duen faktore bat baita eta, beraz, gure erantzukizuna da hura suntsitzea, jabetuz, aldi berean, soldaten desparekotasuna arazo bihurria dela, eta dimentsio askotakoa; ondorioz, askotariko dimentsioetatik landu behar da, eta inplikaturako eragile guztiek elkar hartu behar dute horretarako.

Emakundek egindako Euskadiko egoerari buruzko diagnostikoaren arabera, 2016an, EAEko pertsona langile baten urteko batez besteko irabazia 27.480 euro izan zen: 31.000 € gizonen, eta 23.423 € emakumeen. Horrek esan nahi du EAEn % 24,4ko soldata-arrakala dugula. Arazo bihurria da, eta dimentsio askotako neurriak eskatzen ditu. Bada, Estrategiaren eta Plan Operatiboaren edukiak hiru erronkari erantzun nahi die: (1) soldata-diskriminazioa ezabatzea, (2) lanbide arteko bereizketa gutxitzea eta (3) berdintasunerako eta berdintasunetik hezten sakontzea.

EKINTZA-ARDATZAK

- **1. ardatza – Soldata/orduko desparekotasuna murriztu:** hainbat ekimen adierazi dira; adibidez, ikuskapen-lanak sendotzea, erabakimenean emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua bultzatzea; estereotipoetatik aske dauden hezkuntza- eta lan-ibilbideak bultzatzea; gazteentzako erreferentziazko ereduak eskaintzea...
- **2. ardatza – Eguneko lanaldiari buruzko desparekotasuna murriztu:** proposamenetako bat da bateragarritasun erantzunkideetarako neurriak ezartzen enpresei akonpainatu eta laguntzea, eta ordaindu gabeko zainketa-lanak balioetsi eta bistaratzea, hitzarmen eta akordio kolektiboetan berdintasunaren aldeko neurriak sartzen saiatzea...

- **3. Ardatza – Hezkuntza eta gizartea sentsibilizatu:** hainbat ekimen nabarmentzen dira, adibidez, ikastetxeek genero-ikuspegia beren ekintzetan sartzea bultzatzea; baterako hezkuntza gaitan irakasleek dituzten gaitasunak hobetzea...
- **4. Ardatza - Enpresak eta sindikatuak sentsibilizatu:** hainbat ekimen aurreikusi dira, adibidez, berdintasunerako diagnostikoak eta planak egin ditzaten, enpresa txiki eta ertainei laguntzea, negoziazio kolektiboan parte hartzen duten enpresa- eta sindikatu-arloko eragileen heziketa bultzatzea, emakumeen berdintasuna errazten duten plan edo neurriak dituzten enpresei lehentasuna emateko gizarte-klausulak ezartzea...

GOBERNANTZA-EREDUA

Gobernu Kontseiluan onartutako dokumentua parte-hartze prozesu baten fruitua da. Hasierako dokumentua kontrastatu egin zen hiru hiriburuetan egindako saioetan, joan den irailean. Saio horietan bildutako ekarpenen fruitu, 15 neurri hartu dira.

Estrategia eta Plan Operatiboak ezartzeari begira, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat aurreikusi da. Era horretan, Estrategiaren Gobernantzarako, koordinazio eta jarraipenerako 3 bitarteko erabiliko dira:

- **Sail arteko lantaldea** (Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Ekonomiaren eta Azpiegituren Garapena; Ogasuna eta Ekonomia; Hezkuntza; Enplegua eta Gizarte Politikak; Lana eta Justizia)
- **Erakunde arteko Koordinazio Taldea** (EJ, Foru Aldundiak eta Eudel)
- **Euskadiko Elkarrizketa Mahaia** (Soldata Arrakalari buruzko Topagunea)

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK ELKARLANEAN JARDUNGO DU NAZIO BATUEKIN, KOLONBIAN BAKEA FINKA DADIN BULTZATZEKO

Eusko Jaurlaritzak eta Nazio Batuek elkarlanean jardungo dute, Kolonbian bake jasagarria finka dadin bultzatzeko. Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eta Kolonbiako NBEren Koordinatzaile Egoiarraren Bulegoak (KEB) hitzarmena sinatuko dute; hitzarmenak, gaur, Gobernu Kontseiluaren oniritzia jaso du.

Akordioaren bidez, bi aldeek 2016an Kolonbiako Gobernuaren eta Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia-ren (FARC) artean adostutako Bake Akordioaren ezarpenarekin eta Kolonbiako Gobernuaren eta Ejército de Liberación Nacional-en (ELN) arteko bake-negoiazioekin zerikusia duten ekimen eta jarduerak abian jarri ahalko dituzte.

Hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 aldirako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren ekimenetako batean sartzen da; horrek bidea zabaltzen du nazioarteko erakundeekin elkarlanean jarduteko espazioetan eta giza eskubideekin, gatazken ebazpenarekin, biktimekin eta bakearekin zerikusia duten programetan parte hartzeko, bai eta NBEren 2030erako Agendan eta bere Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GKH) ere.

Zehazki, hitzarmen horren esparruan honako jarduketa hauek egingo dira:

1.- Ejército Nacional de Liberación-ekin (ELN) eginiko elkarriketa politikoak eta negozioazioek sozietate zibilaren partaidetza izatea, nekazarien, identitate-taldean (indigenak eta afrokolonbiarrak) eta emakumeen kolektiboak barne. Helburua da beste su-eten bat eta etorkizuneko bake-negoiazioak izateko baldintzak sortzen laguntzea.

2.- Nazio Batuen erantzuna sendotzea, giza eskubideen defendatzaile diren pertsonak eta lider sozial diren pertsonak babesteko. Horretarako, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren eginkizunak duela urte batzuk Eusko Jaurlaritzatik abian jarritako Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Baterako Babesteko Programarekin lotuko dira. Horrela, estatuaren presentzia gutxiko guneetan lider sozialak babesteko eginkizunak zabaltzeko jarduera batzuk jarriko dira abian.

3.- Gizarte-gatazkaren arriskuei buruzko prebentzio-analisiak. Gatazka estatuaren presentzia gutxiko guneetan dakartzan erronkei aurre egiteko, NBEren Koordinatzaile Egoiarraren Bulegoak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren eta elkarlanaren bidez, egoera humanitarioari buruzko analisiak eta azterlanak, Ekuadorreko eta Kolonbiako mugako krimen antolatua eta Kolonbiako bake, gatazka eta garapenaren inguruko egoerari buruzko beste alderdi batzuk koordinatuko ditu.

4.- Kolonbiari baliagarri zaizkion **bake- eta adiskidetze-prozesuen esperientziak ikastea**, bai eta beste bake-prozesu batzuk ere etorkizunean, besteak beste, honako arlo hauetan: su-etenak, borrokalarien berrintegrazioa, elkarrizketa eta asiskidetzea eta gizarte-bitartekarien eginkizuna. Ikaskuntza hori bultzatzeko, hitzarmena indarrean den lehen urtean bi mintegi antolatuko dira –bat Kolonbian eta beste bat Euskadin–, bake- eta adiskidetze-prozesuen inguruan (Ipar Irlanda, Euskadi, Kolonbia).

Jarraipen Batzordea izango da gaur onetsitako hitzarmenean jaso diren helburuak betetzen direla bermatzeko arduraduna; Eusko Jaurlaritzak, aurtan, 59.000 € bideratuko ditu horretara.

Testuingurua

Kolonbiak bizi duen egoera historikoa da. 2016an adostutako bake-akordioak ezarri izanak zenbait egitura-erreforma egiteko atea ireki du, etorkizunean indarkeria antolaturako modu berriak prebenitu ahal izateko bake jasagarriari eta giza garapenari bide emateko. Herrialdeak ekonomia- eta ingurumen-ahalmen handia du, eta nazioartean bakearen eraikuntzarako eta gizarte-berrikuntzarako eredu gisa ikusten da.

Nazioarteko esperientziak erakusten du lehen bi urteak funtsezkoak direla bakea finkatzeko. Hori da gatazka ondokoaren faserik ahulena. Aldi horretan, Akordio baten ezarpena indarrez abiatu behar da, eta akordioak ezarritako asmoei egoki erantzun behar zaie.

Horiei egoki erantzuteko, aldi berean, lortzen diren akordioak hobeto ezartzeko eta aldeetako bakoitzeko ekipoek behar duten aholkularitza emateko *mekanismo azkarrak* behar dira.

Gaur onetsi den hitzarmena Eusko Jaurlaritzak eta Nazio Batuek Kolonbian bakea finkatzen laguntzeko duten interesaren emaitza da, izan ere, Kolonbia lehentasunezko bazkidetzat jotzen da *Euskadi Basque Country 2020*rako Nazioartekotze Esparru Estrategian.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKO GUZTIEN ZEHAPEN-AHALAREN ARAUKETA BERRIA ONETSI DU

- **Gaur Legebiltzarrera bidali den lege-proiektua bermatzaileagoa da, prozesuak sinplifikatzen ditu eta justizia leheneratzailearen printzipio eta balioetan oinarritzen da, zigor- eta zehapen-araubide hutsaren aurrean**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du “*Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalaren Lege Proiektua*”. Gaur onetsitako testuak aurreko legea indargabetzen du, 1998koa, eta, horrela, 20 urte hauetan izan diren gizarte- eta erakunde-aldaketetara egokitzen da.

Euskadi Estatuan hiru erakunde-mailen zehapen-ahala arautua duen autonomietako bat da, gutxi direla aintzat hartuta, eta lege-mailan arautua duen bakarra da. Testu berriaren helburua da herritarrei berme gehiago ematea hiru erakunde-mailetan – autonomia-, foru- eta udal-mailakoa– zehapen-ahala gauzatzen duten erakunde publiko guztien zehapen-prozesuan. Gainera, araua justizia leheneratzailearen printzipio eta balioetan oinarritzen da, zigor- eta zehapen-araubide hutsaren aurrean.

Gaurtik aurrera, Gobernuak lege-proiektua Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio; bertan, Josu Erkoreka Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburua agertuko da, berak eskatuta, orain Legebiltzarreko taldeen artean eztabaidatzeko jarriko den arauaren xehetasunak azaltzeko.

APLIKAZIO-EREMUA

Etorkizuneko “*Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalaren Legea*”k 45 artikulua ditu, xedapen iragankor bat, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. Administrazio arau-hauste guztien prozedura arautzen du, berariaz baztertutakoak salbu: trafikoko eta bide-segurtasuneko zehapenak, zerga-zehapenak, aduanetakoak, funtzionarioen diziplina-prozesuak edo administrazioarekiko kontratuak ez betetzea, besteak beste (1. art.).

Aurrerantzean, zehapen-prozedura bakarra eta sinplifikatua eratzen da administrazio guztientzat, eta horrek erraztu egiten du operadore juridikoen lana. Horrela, ez da lege sektorial bakoitzera jo behar izango, zehapenen aurrean jarduteko prozedura aztertzeko. Horrela, lege berriak zehapenaren alderdi guztiak arautzen ditu:

- Arduradunak zehaztea
- Erantzukizunetik salbuesteko kausak
- Erantzukizunaren gertakari aldarazleak
- Zehapenak eta konfiskazioa zehaztea
- Berraztertzea eta kalte-ordaina

- Zehapena zatikatzea, etetea, murriztea, ordezkatzeta, luzatzea edo preskribatzea
- Kautela-neurriak
- Erantzukizunak azkentzea
- Zehapena kommutatzea etab.

NOBEDADEAK

Etorkizuneko “*Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalaren Legea*” zigorzuzenbidean oinarritzen da zehapen-prozesua administrazio-zuzenbidera aldatzeko. Nobedadeen artean nabarmentzekoa da zazpigarren artikulua; horrek **adingabeak eta desgaitasuna duten pertsonak babesten ditu**, zehapen-prozesuetan. Arauak zehapenaren izaera hezitzailearen edo erreformatzailearen alde egiten du, zigor- eta zehapen-araubide hutsaren aurrean. Horrela, adingabeak edo desgaitasuna duenak administrazioko arau-haustea egiten duenean, administrazio publikoek horiek babesteko eta, esaterako, zehapenen alternatibak proposatzeko –besteak beste, kontziliazio-edo ordain-egintzak arau-hausleen eta biktimen artean– interes nagusia izan beharko dute gogoan. Helburua bizikidetzatza jatorrizko egoerara itzultzea da, zehapenaren ordeztatutakoa konponduko duen egintza kontzientea ezartzea.

EUSKARA

Testuaren beste nobedade nagusietako bat da euskarazko testuaren terminologia juridikoa eguneratu dela. Xedapen gehigarria eta azken xedapenetako lehena gehitu dira, euskara argiagoa, ulergarriagoa eta erabilerara hobeto egokitzen dena erabiltzeko, nahi dutenek zehapen-prozedura osoa euskaraz egiteko eskubidea baliatu ahal izateko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

IVAP-EK ETA BJKN-K LUZATU EGIN DUTE EREMU JUDIZIALEAN LANEAN ARI DIREN PERTSONEI PRESTAKUNTZA EMATEKO HITZARMENA

Gobernu Kontseiluak, gaur, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (BJKN) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) artean eremu judizialeko prestakuntzarako sinatutako hitzarmena 2019ra arte luzatzea erabaki du.

Akordioak karrera judiziala eratzen duten pertsonen eta euskal administrazio publikoetako langileen ziklo, ikastaro, mintegi, hitzaldi eta mahai-inguruen antolaketa arautzen du; hala, beren prestakuntza eta ikerketa bultzatu nahi da.

Adostutakoaren arabera, aldeetako bakoitzak jarraitu beharko du programatzeko aurreikusita izan dituen prestakuntza-jardueren berri ematen, sasoz, beste aldeari parte hartzen duen ala ez erabakitzeko aukera emateko.

Era berean, segimendu-batzordeak jarraituko du bi erakundeak koordinatzen. Alde sinatzaile bakoitzeko bi ordezkari eraten duten batzordeak –BJKN eta IVAP– kontrolatu eta ebaluatu egiten ditu egin beharreko jarduerak.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

350.000 EUROKO LAGUNTZAK, ABELTZAINZAKO ARRAZA GARBIAK HOBETZEKO

- Arraza garbien genealogia liburuak kudeatzen dituzten abeltzaintza elkarteei zuzendutakoak dira. Elkarte horiek hobekuntza programak gauzatzen dituzte, arraza hedatu eta sustatu, eta horien balorazio genetikoaren ebaluazio bat zein errendimenduen kontrola egiten dute
- Emakume Abeltzainen Estatutua betetzeko, aurreneko aldiz, erakunde eskatzaileen zuzendaritza organoetan emakumeak ba ote dauden aztertuko da

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburu andrearen Agindua onartu du. Agindu horrek 2019ko laguntzen deialdia egiten du, 350.000 euroko gehieneko aurrekontuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan arraza garbien abeltzaintza erakundeak finantzatzeko. Emakume Abeltzainen Estatutua betetzeko, esleipen irizpideen artean, erakunde eskatzaileen zuzendaritza organoetan emakumeak ba ote dauden aztertuko da, lehenbizikoz.

Laguntza horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak kudeatzen ditu, eta nekazaritzako elikagaien balio katea bultzatzeko politika irmoaren baitakoak dira: besteak beste, kalitatezko abeltzaintza, landa ingurunekeo biodibertsitatea, eta elikadura osasuntsu eta iraunkorra. Horiek guztiak Abeltzaintza eta Elikadurari buruzko Plan Estrategikoak (PEGA) jasotzen dituen oinarritzko zutabeak dira, Plan horrek finkatzen baititu honako legegintzaldi honetan arlo jakin horietan jarduteko ildo orokorrak.

Laguntzak, zehazki, arraza garbien genealogia liburuak kudeatzen dituzten abeltzaintza elkarteei zuzendutakoak dira. Elkarte horiek hobekuntza programak gauzatzen dituzte (kontserbazioa edo hautapena), arraza hedatu eta sustatu, eta horien balorazio genetikoaren ebaluazio bat zein errendimenduen kontrola egiten dute.

Era berean, lortutako emaitzak zabaldu egin behar izaten dituzte elkarrekin, eta animaliak eta horien produktuak merkaturatzen lagundu, ekoizpenaren eraginkortasun handiagoa eta abeltzaintza ustiapenen errentagarritasun handiagoa lortu ahal izateko, programa berritzaileak eta teknologia berriak pixkana-pixkana aplikatuz. Euskal Autonomia Erkidegoko landa inguruneen eta mendiko nekazaritzaren garapenean eta sustapenean ere laguntzen dute.

Hauek dira diruz laguntzeko moduko gastuak:

- Abeltzaintza lehiaketak antolatzea eta horietan parte hartzea
- Genealogia liburuak sortzea eta mantentzea
- Ganaduaren kalitate genetikoaren edo errendimendua ezagutzeko probak

Eskaerak aurkeztea eta baloratzea

2019rako deialdi honetarako eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira. Eskaera egiteko izapideetarako zehaztapenak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentu guztiak eskuragarri daude honako helbide hauetan: http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/ (gaztelaniaz) / http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/ (euskaraz).

Laguntzen balorazioaren eta kuantifikazioaren irizpide objektiboek dagokienez, diru laguntza bakoitzaren zenbateko jakina mugen barnean finkatuko da, dekretuan jasotako kuantifikazio irizpideak aplikatuz. Elkarteen zuzendaritza organoetan emakumeak egoteagatik 15 puntu emango dira.

Ogasun eta Ekonomia

GOBERNUAK 2018-2022 EUSKAL ESTADISTIKA-PLANAREN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU

- **228 eragiketa estatistiko barne hartzen ditu, eta 18 milioi euroko urteko kostua du**
- **Euskal Estatistika Planaren VIII. lege-proiektua da, eta Legebiltzarrean lege bidez onartzen den Gobernuaren plan bakarra**

Gobernu Kontseiluak 2018-2022 Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektua onartu du gaur. Horren helburu nagusia da datozen bost urteetan EAEko estatistika-jarduera antolatzekeo tresna bihurtzea. Hain zuzen, jarduera hori urtero Gobernuak onartzen dituen estatistika-programen bidez gauzatzen da.

Estatistika ofiziala ezinbestekoa da gizartearen errealitate sozioekonomikoa zein den jakiteko. Estatistikek ematen dituzten emaitzak funtsezkoak dira, erabakiak hartzeko garaian zuzeneko eragina baitute, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Lege proiektu honetan, 2022ko abenduaren 31ra arte egingo diren estatistika guztiak biltzen dira. Zer informazio eskainiko den, estatistikak nola egingo diren eta nork egingo dituen ezartzen du. Horrela, haien erabiltzaileek jakin ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoan 2022ra arte produkzioa zein izango den, eta, beraz, zein informazio estatistiko eskuragarri edukiko duten.

2018-2022 Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektuak 228 eragiketa estatistiko jasotzen ditu. Eustatek 124 eragiketen ardura du, eta sailek banaketa hau du dute:

- Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza: 21 eragiketa.
- Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak: 21 eragiketa.
- Kultura eta Hizkuntza Politika: 14 eragiketa.
- Enplegua eta Gizarte Politikak: 12 eragiketa.
- Osasuna: 12 eragiketa.
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 9 eragiketa.
- Segurtasuna: 4 eragiketa.
- Ogasuna eta Ekonomia: 4 eragiketa.
- Lana eta Justizia: 4 eragiketa.
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 3 eragiketa.

Euskal Estatistika Planaren urteko kostua 18 milioi eurokoa da. Eustatek gastuaren % 73,20 hartzen du bere gain, eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzako sailek. Haien jardunak Europako Estatistikako Jardunbide Egokien Kodeko funtsezko hamabost printzipioek araututa egon behar du.

Gobernu Kontseiluak onartu duen lege-proiektu hau Euskal Estatistika Kontseiluan bildutako gizarte-eragileen gogoetaren emaitza da: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, Eusko Legebiltzarra, Batzar Nagusiak, udalak, unibertsitateak, enpresa-elkarteak, sindikatuak, merkataritza-ganberak eta kontsumitzaileen-elkarteak. Beraz, Gobernuak ez du besterik egiten euskal gizarte-eragileek planteatzen dituzten informazio-beharrak Eusko Legebiltzarrari helarazi baino.

Hezkuntza

OTEITZA LIZEO POLITEKNIKOARI DIRU-LAGUNTZA, LANBIDE-ESPEZIALIZAZIOKO PROGRAMA BAT MARTXAN JAR DEZAN

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Zarauzko Oteitza Lizeo Politeknikoa BHIP ikastetxeari 133.505,10 euroko diru-laguntza zuzena ematea. Laguntza hau ikastetxeak “*Abiadura Altuko eta Errendimendu Altuko Material Berezien Mekanizazio Aurreratua*” deituriko Lanbide-espezializazioko Programa abian jar dezan ematen zaio.

Espezializazioko programa hau martxan jarrita, Hezkuntza Sailaren helburua da, Urola Kosta eskualdean mekanizazio industrialaren arloan diharduten enpresek, edo indarra hartzen ari diren sektoreetakoek dituzten berriazko kualifikazio premiei erantzuna ematea, askotan bete gabe gelditzen baitira egun.

Espezializazio programa honek, bertan ikasten duten ikasleei ahalbidetzen die aipaturiko sektore horretako enpresek (mekanizatua jarduera nagusi duten enpresek) eskatzen duten ezagutza sakonagoa hartzea eta gaitasun profesional egokiagoen jabe egitea. Era honetan, egun bete gabe gelditzen diren lanpostuak hartzeko prestatzen dira ikasleak.

“*Abiadura Altuko eta Errendimendu Altuko Material Berezien Mekanizazio Aurreratua*” 800 orduko prestakuntza espezializatua duen programa da, eredu dualekoa. Horietatik 680 ordu ikastetxean betetzen dira, eta 120 ordu enpresako proiektuan, ikastetxeak jarraipena egiten diola. Honen bidez, ikasleak prestakuntza maila altua jasoko du, maila teknologiko handikoa eta berritzailea. Programa honekin lotutako titulua Ekoizpenaren programazioko goi-mailako teknikariaren titulua da.

Lanbide-espezializazioko Programa hau Zarauzko Oteitza Lizeo Politeknikoan ezartzeko, eskualdeko enpresek dituzten prestakuntza premien analisi sakona egin da, horrela antzemandako langileen kualifikazio eta espezializazio behar horiei erantzun zehatza eman ahal izateko. Formula honek ikasleen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzen ditu.

Hezkuntza

1,7 MILIOI EURO KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO ETA HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du kulturartekotasuna sustatzeko programak –ikasle etorkinei zuzenduak- eta ikasle sartu berrien hizkuntza errefortzuko programak gauzatzeko diru-laguntzak deitzen dituen Agindua. Sartu berri diren ikasleei zuzenduriko hizkuntza errefortzuko programak, Euskadiko hizkuntza ofizialak ez ezagutzearekin zerikusia duten zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduak izango dira.

Deialdi honek 1.698.000 euroko diru-kopurua du, eta Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten Euskadiko itunpeko ikastetxeei dago zuzendua. Deialdi honen helburua da, 2018-2019 ikasturtean aipaturiko programa horiek martxan jartzeak eragiten dituen exekuzio nahiz pertsonal gastuak finantzatzea.

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituzten itunpeko ikastetxeek honako dokumentazio honekin aurkeztu beharko dute eskaera, hilabeteko epean:

-Hizkuntza indartzeko programatarako, ikastetxeak ezarri asmo duen hizkuntza indartzeko programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatua eta haien arduraldiaren ehunekoa, parte hartuko duen ikasle kopurua, eta programazio didaktikoa, burutuko diren jarduera didaktikoak eta ebaluazio irizpideak azalduz.

-Kulturartekotasuna sustatzeko programatarako, ikastetxeak ezarriko duen programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatuak, ikasturterako proposatutako helburuak, jarduerak eta beren egutegia edo lorpenen adierazleak, besteak beste.

Joan zen 2017-2018 ikasturtean Hezkuntza Sailak, orotara, gisa honetako 105 programa lagundu zituen diruz, itunpeko ikastetxeek aurkeztutako programak denak ere. Aurtengo ikasturte honetan, ikastetxeek hilabeteko epea izango dute euren proiektuak aurkezteko, deialdia EHAA-n agertu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kultura eta Hizkuntza Politika

BINGEN ZUPIRIA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUAK AZPIMARRATU DU EUSKARALDIAK “AKUILU BAT” IZAN BEHAR DUELA EUSKARA ADMINISTRAZIOAN SUSTATZEKO ETA BALIO BEHAR DUELA HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BERMEAN AURRERA EGITEKO

- **Gobernu Batzordearen osteko prentsaurrekoan gogoratu duenez, euskal erakundeak “oraindik ez dira gai, kasu guztietan, herritarrak hautatzen duten hizkuntzan erantzuteko”**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak bat egin du, bere gaurko saioan, Euskaraldia ekimenarekin. Lehendakariaren eta sailburuen bileraren ostean –ohi bezala, nagusiki euskaraz–, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak nabarmendu du Euskaraldiak “akuilu bat izan behar duela Administrazioarentzat” eta balio behar duela herritarren hizkuntza eskubideen bermean pauso berriak emateko. “Euskararen ezagutza eta erabilera euskal administrazioetan altua da, batez ere gazteen artean; hala ere, ditugun datuen arabera, oraindik ez gara gai kasu guztietan herritarrak hautatzen duten hizkuntzan erantzuteko. Hobetu beharra dago eta Euskaraldiak lagun diezaguke horretan”, adierazi du.

Zupiria sailburuak Gobernu Batzordearen osteko prentsaurrekoan hitz egin du, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburu eta bozeramailearekin, Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomia sailburuarekin eta Izaskun Landaia Emakundeko zuzendariarekin. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak V. Plangintzaldirako (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusiaren Amaierako Ebaluazioaren datuak ekarri ditu gogora. Ebaluazio honek 323 erakunde eta 38.000 langileren (86/1997 Dekretuaren eraginpeko administrazio beharginak) hizkuntza-portaera eta -ezaugarriak neurtu zituen, 800 langileren lagina eta 203 erakundetako ordezkariaren erantzunak jasoz. Horiek oinarri hartuta, azaldu du nondik joko duen Eusko Jaurlaritzak euskara euskal administrazioetan indartzeko.

Euskal administrazioen testuingurua

Ebaluazio honen arabera, herritarrekiko harremanari dagokienez, Administrazioa idatziz jotzen duten herritarren % 30ek euskaraz edo elebitan egiten dute; eta kopuru hori handitu egiten da komunikazioa aurrez aurre gauzatzen denean (% 38,1raino) edo telefonoz denean (% 36,3raino). Txosten honek, halaber, argi erakutsi du aurrez aurreko elkarrizketetan eta telefono bidezko harremanetan eragin handia izan duela langileek erabilitako hizkuntza lehen hitza esatean. “Lehen hitza euskaraz beti esaten duten langileen kasuan, aurrez aurreko elkarrizketen % 48,3 euskaraz izan dira eta % 14,4 elebitan. Telefono bidezko harremanetan, datuak are altuagoak dira. Beraz, garrantzi handia dauka langileen portaerak, eta joera horiek aldatzeko ere lagungarria izan daiteke Euskaraldiak proposatu digun ariketa”, adierazi du.

Hala ere, Zupiriak onartu duenez, Administrazioa ez da beti gai izaten herritarrek hautatzen duten hizkuntzan erantzuteko. Idatzizko komunikazioen kasuan, haiek hautatuko hizkuntzan erantzuten zaie kasu gehien-gehienetan, baina ez guztietan (10etatik 9tan; hortaz, euskal administrazioek hamarretatik bati gaztelaniaz erantzuten diote, nahiz eta euskara hautatu); aurrez aurreko harremanetan, herritarrak euskara aukeratzen duenean lau alditatik hirutan euskaraz erantzuten zaio (laurden bati gaztelaniaz erantzuten zaio, nahiz eta euskara aukeratu).

“Datuok erakusten digute euskal hiztunek euskara erabiltzen dutela administrazioa jotzean, eta horrek esan nahi du herritarrek konfiantza daukatela Administrazioak euskaraz erantzuteko gai izango dela. Kontuan hartzen badugu zein den euskal hiztunen kopurua gure erkidegoan, erabilera datu hori altua da. Bestetik, datu hauen arabera, Administrazioak lanean jarraitu behar du herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko. Izan ere, Legearen arabera, herritarrek hizkuntza hautatzeko eskubidea daukate, eta Administrazioek hori errespetatzeko derrigortasuna”, azaldu du Zupiriak.

Langile publikoen arteko harremani dagokienez, sailburuak adierazi duenez, alde nabarmena agertzen da idatzizkoaren eta ahozkoaren artean. Langileen idatzizko harremanetan gaztelaniak hartzen du indarra, baina ahozkoan lankideen artean herritarrekin baino gehiago erabiltzen da euskara. Langileen arteko bileren % 41,5 euskaraz edo elebitan egiten dira eta, ordezkari politikoak daudenean, bileren % 46,5 egiten dira euskaraz. Idatzizko barne komunikazioari dagokionez, agiri informalen % 39,5 egiten dira euskaraz edo elebitan eta, agiri ofizialen kasuan, % 55,3 egiten da euskaraz edo elebitan.

Hobetzeko tartea

Sailburuak nabarmendu duenez, bilakaera positiboa egon da euskal administrazioetan euskararen erabilerari dagokionez eta horrek, azpimarratu duenez, zerikusi zuzena dauka ezagutzan izan den jauziarekin. Gaur egun langileen % 71k era bateko edo besteko hizkuntza gaitasuna dute eta, beraz, neurri handiagoan edo txikiagoan, prestatuta daude euskaraz ere lan egiteko. Kopuru hori 1990an askoz ere txikiagoa zen: % 23,5. Kopuru hori hizkuntza eskakizunen eraginaren gaineratik dago, euskal administrazio ezberdinetako langile publiko guztien % 40,8ri ez baitaio eskatzen inolako hizkuntza eskakizunik egiaztatzeko.

Testuinguru horren aurrean, Sailburuak gogoratu du zeintzuk izango diren Jaurlaritzaren lehentasunak datozen urteotarako:

- Euskara eskatzen duen lanpostu batean aritzen den langileak prest egon beharko du bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko, erabilera planetan ezarritakoaren arabera eta erakundearen laguntzarekin.
- Administrazioek laguntza eman behar die euskaraz lan egingo duten langileei, langile horiek behar bezala treba daitezen
- Euskarazko komunikazioak bultzatze aldera, barruan euskaraz lan egiteko zirkuituak bilatuko dira eta administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatu nahi da.
- Idatzizko komunikazioak ahaztu barik, ahozko komunikazioek izan behar dute lehentasuna plangintzaldi honetan.
- Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak ezinbesteko gidari dira euskararen normalizaziorako, planaren helmuga eta pausoak zedarrizten baitituzte. Administrazioak ele bietan jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile, atal eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak.
- Datozen urteotan hainbat gazte administrazioan sartuko direnez, protokoloak ezinbesteko tresnak izango dira horiek euskaraz era naturalean lan egin dezaten.
- Kontratazio-organo guztiek nahitaez sartu behar dituzte kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-baldintzak, eta neurriak hartu beharko dituzte kontuan hartzen ez badira.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA ESTRATEGIA Y PLAN OPERATIVO PARA REDUCIR LA BRECHA SALARIAL EN EUSKADI

- **En la Estrategia se marca la meta de lograr una Euskadi en la que en el año 2030 se sitúe entre los países europeos con menor brecha salarial**
- **Los retos a abordar son tres: (1) eliminar la discriminación salarial, (2) reducir la segregación ocupacional y (3) profundizar en una educación desde y para la igualdad**
- **El Plan Operativo contiene 4 ejes de actuación, 20 directrices, 60 medidas concretas y una previsión de recursos económicos de 283 millones de euros en el horizonte 2019-2020**
- **El contenido de la Estrategia y el Plan Operativo se desarrollará en coordinación entre diferentes departamentos del Gobierno Vasco, un grupo interinstitucional y la Mesa de Diálogo Social de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Estrategia y el Plan Operativo de Acción para reducir la Brecha Salarial en Euskadi. En este documento se fija como meta que Euskadi se sitúe para el año 2030 entre los cinco países europeos con menor brecha salarial. El Plan Operativo para los próximos dos años contiene 4 ejes de actuación, 20 directrices, 60 medidas concretas y una previsión presupuestaria de 283 millones de euros.

El Ejecutivo Vasco tiene en su Programa de Gobierno para la XI Legislatura el compromiso de impulsar la igualdad efectiva y por ello presenta este documento ya que la brecha salarial es uno de los factores que reproduce y perpetúa la desigualdad de mujeres y hombres en nuestra sociedad, y por tanto, es nuestra responsabilidad contribuir a su eliminación, siendo conscientes, al mismo tiempo, de que la desigualdad salarial es un problema complejo y multidimensional cuyo abordaje ha de ser multidimensional y ha de venir de la mano de todos los agentes implicados.

Según el diagnóstico de la situación en Euskadi realizado por Emakunde, la ganancia media anual por persona trabajadora en la CAE en 2016 fue de 27.480 euros, 31.000€ para los hombres y 23.423€ para las mujeres. Esto supone que en la CAE existe una brecha salarial del 24,4%. Se trata de un problema complejo que requiere de medidas multidimensionales. Así, el contenido de la Estrategia y el Plan Operativo busca responder a tres retos: (1) eliminar la discriminación salarial, (2) reducir la segregación ocupacional y (3) profundizar en una educación desde y para la igualdad.

EJES DE ACTUACIÓN

- **Eje 1 - Reducir la desigualdad en el salario/hora:** se recogen iniciativas como el refuerzo de labores de inspección; impulsar la presencia equilibrada de mujeres y hombres en la toma de decisiones; impulsar itinerarios educativos y laborales libres de estereotipos; proporcionar modelos de referencia para jóvenes...

- **Eje 2 - Reducir la desigualdad en cuanto a la jornada laboral:** entre las propuestas se encuentra la de acompañar y apoyar a las empresas en la implementación de medidas de conciliación corresponsable; visibilizar y dar valor a los trabajos de cuidados no remunerados; fomentar la incorporación en los convenios colectivos y acuerdos de empresa de medidas a favor de la igualdad...
- **Eje 3 - Educación y sensibilización social:** destacan iniciativas como la de impulsar que los centros incorporen la perspectiva de género en sus acciones; mejorar las competencias profesionales del profesorado en materia coeducativa...
